

NAFARROAKO IPAR-MENDEBALEKO HIZKEREN EGITURA GEOLINGUISTIKOA

Tesiaren egilea: Amaia Apalauza Olo

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea

Saila: Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Tesi-zuzendaria: Iñaki Camino Lertxundi

Tesiaren laburpena:

Hizkuntza aldakorra da berez, ez da gauza estatiko bat, eta aldakortasun hori ikuspuntu askotatik azter daiteke. Dialektologiaren helburua da hizkuntza espazioan zehar nola aldatzen den aztertzea, eta marko horretan kokatzen da gure tesia. Nafarroako ipar-mendebaleko lau ibarretako euskara aztertu dugu: Imotz, Basaburu Nagusia, Larraun eta Araitz-Betelu. Hizkera horiek espazioan nola banatzen eta egituratzen diren ikertu dugu, herritik herrira eta eskualdetik eskualdera aldatuz edo berdinduz doazen hizkuntza-ezaugarriak identifikatuz, eta betiere denbora (alegia, ardatz diakronikoa, historia) eta beste ikuspuntu batzuk ere aintzat harturik.

Dialektologiaren ildo kontrastiboa jorratu baitugu, ingurumariko hizkerak ere kontuan izan ditugu (Atetz, Ultzama, Arakil, Gulibar, Txulapain, Basaburu Txikia, Leitza, Areso, eta Gipuzkoako Tolosaldea eta Goierri), hizkuntza-ezaugarrien eta are mintzoen muga linguistikoak hobeki identifikatzeko asmoz.

Bestalde, hizkera batek hiztun-erkidego bat du beti atzetik, eta baitezpadakoa da erkidego horren ezaugarriei eta mendez mende izandako harremanei errepara-tzea, horrek zeharo baldintzatzen baitu hizkera bat halakoa edo holakoa izatea.

Ikuspegi sinkronikoa eta diakronikoa baliatuz, Nafarroako ipar-mendebaleko euskaran zer ezaugarri dagoen, ezaugarri horiek zer antzinatasun duten eta, azken batean, ezaugarriak espazioan nola banatzen diren ikertzea izan da gure tesiaren asmoa. Horretarako, gure eremuko hizkerak aztertzeko metodologia bat proposatu dugu. Izan ere, Euskal Herriaren erdigunean egonik, hainbat eremutako indar linguistikoak metatu dira gure eremuko lau ibarretan, eta, horrenbestez, ezaugarriak era berezi batean konbinatuta ageri zaizkigu; hala, berrikuntza sistematiko partekatuak lehenetsi ditugu gure azterketa dialektologikoan, baina beste ezaugarri mota batzuk ere aintzat hartu ditugu, baldin eta berrikuntza sistematikoen ondoan jarrita koherentzia geolinguistikoa agertzen badute (alegia, eremu geografiko bera partekatzen badute). Horixe da, hain zuzen, gure metodologiaren ardatz nagusia.

Azkenik, eremu horretako hizkeren sailkapen dialektologikoari buruzko ikuspegi berri bat eman dugu, erdigune linguistiko bat osatzeak dakartzan arazo eta zailtasunez jabeturik. Hala, hiru eremu nagusi bereizi ditugu gure iker-eremuan: Imozko eta Basaburu Nagusiko ekialdea (nafarreraren erdiguneko azpieuskalkiaren baitan), Imozko eta Basaburu Nagusiko mendebala eta Larraungo hego-ekialdea (nafarreraren mendebaleko azpieuskalkiaren baitan), eta Larraungo ipar-mendebala eta Araitz-Betelu (nafarreraren mendebaleko azpieuskalkiaren eta erdialdeko euskalkiaren arteko zubi-hizkerak). Azken batean, euskara nafarraren gaineko ikuspegi berri bat eskaintzen du gure tesiak.